

Eskolako kanpo-espazio berdea: STEM eta jasangarritasunerako hezkuntzarako diseinua eta erabilera didaktikoa

Programa (2025/2026 ikasturtea)

1. MODULUA: Principios de permacultura para el espacio verde escolar	
Descripción	En esta primera sesión se dará una introducción sobre la permacultura y se mostrarán las bases para transformar los patios escolares en un espacio vivo, sostenible y relacionado con la naturaleza. Durante tres horas, se ofrecerán de forma sencilla y práctica los fundamentos teóricos de la permacultura, sus principios básicos y su aplicación al diseño de espacios educativos. Como última actividad, el grupo realizará un diseño colectivo para transformar un patio escolar integrando huertas, frutales, charcas, áreas de sombra y zonas de juego natural. Todo ello a través de la conexión en un sistema armonioso y funcional que fomente el aprendizaje, el bienestar y la sostenibilidad.
Duración	1 sesión de 3 horas
Fecha y horario	2026/05/06, asteazkena, 16:00-19:00
Profesorado	Pedro Ferrero (Kiribilore Permakultura)
Idioma	Gaztelera

2. MODULUA: Landatutako bioaniztasuna eta Haziei buruzko formakuntza tailerra	
Deskribapena	Ikasleekin eskoletan lantzeko bi proposamenak praktikan jarriko dira. Bi saioz osatutako pildora hau Euskal Herriko Hazien Sareak emango du. Irabazi asmorik gabeko elkarte honek barazki eta fruta arbolen barietateen berreskurapen proiektuak garatzen dituzte. Lehenengo saioan landatutako bioaniztgasunari buruzko tailerra eramango da aurrera barazkien hazien identifikazioa, hazitegiak eta kontserbazio teknikak ezagutzeko. Bigarren saioa eskolako hazien liburutegia prestatzen ikasiko dute parte-hartzaileek. Parte-hartzaileek hazi-bilketa, biltegiatzea eta dokumentaziorako metodo praktikoak aurkituko dituzte, ikasgelarako egokiak direnak. Tailerrak hazien kontserbazioaren garrantzi kultural eta historikoa jorratzen du, jatorrizko praktikak egungo komunitate-hazi trukeetatik, irakasleei lan hau elikagai-segurtasunari eta ingurumen-zaindaritzari buruzko ikasgai zabalagoen barruan kokatzeko lagunduz. Ikasleek gidatutako hazi-trukeak antolatzeke eta tokiko baratze-gintza-komunitateekin konektatzeko ikasiko dute ere, beren bildumak zabaltzeko.
Iraupena	2 orduko bi saio
Data eta ordua	2026/05/13; 2026/05/20, asteazkena, 16:00-18:00
Irakaslea	Joseba Iburgurengoitia (Euskal Herriko Hazien Sarea)
Hizkuntza	Euskara

**Eskolako kanpo-espazio berdea: STEM eta jasangarritasunerako hezkuntzarako diseinua eta erabilera didaktikoa**

<b>3. MODULUA: Matematika baratzean, matematika baratzearekin</b>	
<b>Deskribapena</b>	Saio honetan hainbat jarduera egingo dira Matematika lantzeko Lehen Hezkuntzan. Baratzean bertan kokatuz (tokiko ikaskuntza) eta metodologia aktiboak erabiliz, inplementatzeko proposatzen ditugun jarduera didaktikoen bidez ikasleek ikuspegi eta arrazoibide matematikoak garatu eta aplikatuko dituzte hainbat problema ebazteko. Matematikarekiko ikasleen motibazioa areagotzeaz gain, kontzeptuen ulermen sakonagoa izatea lortu nahi dugu, errealitatean baratzean gerta daitezkeen prozesu eta jardueren bidez. Finean, matematika arlotik bideratuta, ikaslearen ikaskuntza esanguratsua eta integrala osatu nahi dugu. Planteatzen ditugun matematikako jarduerak inplementatu egin dira Arabako Campuseko baratze ekologikoan bertan, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko (UPV/EHU) Lehen Hezkuntzako irakaslegaiekin Matematika eta bere Didaktika II irakasgaietan.
<b>Iraupena</b>	3 orduko saio bat
<b>Data eta ordua )</b>	2026/05/27, asteazkena, 16:00-19:00
<b>Irakaslea</b>	Elena Agirre Basurko (Matematikaren Didaktikako aditua eta HaziCampuseko proiektuko kidea; Hezkuntza eta Kirol Fakultatea)
<b>Hizkuntza</b>	Euskara

<b>4. MODULUA: Lorzuroa nolakoa da? Eta gure ikasleei nola gerturatu?</b>	
<b>Deskribapena</b>	Saio honetan lurzoruaren ezaugarriak, osagaiak, genesisia eta mehatxuak ezagutzeko aukera izango dugu. Berau lantzeko tresna didaktikoak ezagutarazi eta aplikatzea nahi da. Horretarako NEIKERek diseinatutako lorzoruaren osasun txartelak erabiliko ditugu eta jadanik ezarritako transposizio didaktikoa aurrera eramango da. Saio honek aukera ematen du praktika zientifikoetan trebatzeko, galdera ikergarriak egiten ikasiz eta horri erantzuteko ikerketa bat planteatuz eta aurrera eramanez. Azkenik, lurzoruaren garrantzi ekosistemikoaz hausnartzeko parada izango dute parte-hartzaileek, eskolako baratzak eskaintzen duen testuinguru hurbiletik ikasleen kontzientzia ekosoziala garatzeko aukera gertutik ikusiz.
<b>Iraupena</b>	3 orduko saio bat
<b>Data eta ordua</b>	2026/06/03, asteazkena, 16:00-19:00
<b>Irakaslea</b>	Daniel Zuazagoitia eta Lur Moragues Saitua (Zientzia Esperimentalen Didaktikako adituak eta HaziCampuseko proiektuko kideak; Hezkuntza eta Kirol Fakultatea)
<b>Hizkuntza</b>	Euskara

Eskolako kanpo-espazio berdea: STEM eta jasangarritasunerako hezkuntzarako diseinua eta erabilera didaktikoa

<b>5. MODULUA: Ezagutu zure eskolako biodibertsitatea!</b>	
<b>Deskribapena</b>	Modulu honetan biodibertsitatearen oinarrizko kontzeptuak eta hauek lantzeko tresna didaktikoak ezagutarazi eta aplikatzea nahi da. Horretarako, lehenik eta behin, kanpoko espazioaren habitaten analisi eta deskribapena egingo da, bakoitzaren ezaugarri eta elementu nagusienak identifikatuz eta bertan bizi daitezkeen izaki bizidunekin loturak egiten hasiz. Eskolako espazioan bioaniztasunari buruzko behaketa-ikerketak egiteko aukera aztertuko da, hegaztien edo ornogabeen biodibertsitatea aztertuz. Bigarrenik, ikasgelan eta oinarrizko tresneria zientifikoa erabiliz, normalean ikusten ez ditugun izaki bizidunak ezagutarazi nahi da, biodibertsitatearen ubikuotasuna eta funtzio zabala barneratzen laguntzeko.
<b>Iraupena</b>	3 orduko saio bat
<b>Data eta ordua</b>	2026/06/10; asteazkena, 16:00-19:00
<b>Irakaslea</b>	Aritz Ruiz-González, Arantza Rico eta Igone Palacios-Agúndez (Zientzia Esperimentalen Didaktikako adituak eta HaziCampuseko proiektuko kideak; Hezkuntza eta Kirol Fakultatea)
<b>Hizkuntza</b>	Euskara